

186

Amar Aguindubeetaso

rijan! ; Oh gurasuac , ta umiac , jai santuben
desondragarrijac! Edegui eguizuz ceuben ve-
guillac.

Baina ceuc gueure Jawngoico maitia , ceuc
imini biar dozu gueure vijotzetan eguija santu
oneen amodijua. Ceuc erbestetu biar dozu gueu-
re gogoti munduco vanidade nasaijetaraco naija,
ta zabaldu aren lecuban Ceruco ondasunen go-
sia , ta ceure gracia , ceinegaz jadichico dogun
Ceruleo betico gloria. Amen.



LAUGARREN

AGUINDUBA.

I. ICASQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan : *Gurasuac umiai zor
deutsen azieria.*

Jangoicuae laugarren aguinduban esaten dents-
cu , neure entzula onac : *Ondrauco dituzu ceu-
re Aita , ta Ama , luzaro bitzi zaitezan , ceu-
re Jaun , eta Jaangoicuae emongo deutsun lurr-
rian (1).* Leleengo , iru aguindubetan Jaangoicuae
escatuten deutsu , bere anditasunari jagocan
lotsia , ta ondria ; ta beste zazpi aguindubetan

pro-

Exod. C. 20.

Itasiquizuna.

187

proximuari jagocan provechuba, edo oneria. Janngoico onac, ta guztien arduria daucanac, bere ondriaren ondoric bertati beguiratuten deutsa, gueuc bata bestiaren artian cuqui biar dogun ontasunari, zuzentasunari, ta maitetasunari. Ta au zintzoro gorde daigun, emon deutzuz lotute, edo legue oneco aguindubac. Bada San Juanec dinuan leguez (1), gueure artian vitzi dirian, ta gueure veguijen aurrian daucaguzan anaiac, edo lagunac, ameeetan ez badi-tugu; ? Celan amauco dogu, icusten ez dogun Jaungoicua? Gueure artian dagozanen, edo proximo guztien artian, leleengo dira, Jaungoicuz ostian, gueuri izatia emon deutchubenac, gueure gurasuac. Au gaiti langarren lecuban Jaungoicua aguinduten deutsu: *Gurasuac on-dreetaco.*

Gurasuen, edo Aitaren, ta amaren izenagaz sartuten dira aguindu onetan, dino Erromaco Catecismoac (2), ez bacarric gueu sortu guindubezan Aita, ta ama; ez bada, baita gueuri arimaco, edo munduco gaucetean aguinduteco escubidia dauqueenac bere. Obispo Jaunac, Cura Jaunac, ta Sacerdote Jaunac, esaten da, diriala gueure gurasuac; ta ez azque-nengo Aita Santu Erromacua, Jesu Cristoren orde-cua luurrian. Bada, San Pauloc esaten da-ven leguez, Evangelijo santuban, ta Jaungoicua-ren sinistutian eura sortu gaitubee. Oneen ondoric Gurasotzat daucaguz gueure Erregue Jaunac, ta areen ordian dagozan errijetaco Agui-
ta

(1) Epist. 1. C. 4. (2) 4. precept. . 8.

tarriac. Alan esaten eutseen *Aira* bere crijadu-
 bac Naamani (1) Azquenian : Gurasuac esaten
 rjacue , edadian , cereguinian , edo opicijuan , ta
 tjaquiturijan nausijago dirianai , ceintzuc dirian
 zaarraguac , gueure eracutslac , edo maisubac ,
 ta curadoriac , edo gueure arduria artu davee-
 nac. Onei guztioi zor deutseegu bacochari bere
 lecuban , ta moduban ondria , ta lotsia. Ta
 guztiaac sartuten dira , edo ercerretan dira lau-
 garren aguinduban. Baina guztien artian leleen-
 go lecuba dabca , seme alabaac euren gurasuai
 zor deutsen lotsa onac. Ta alcarri darraicozan
 leguez , Gurasuac seme alabai zor deutsen azie-
 ra ona ; ta seme alabaac gurasuai zor deutsen
 lotsa ona. Esango deutsut iracatsi onetan : *gu-
 rasuac ce aziera emon biar deutseen umiai*. Ta
 onen ondoric , beste aguindu oni darraiconaz.
 Egon zaite entzute onagaz.

Umeen aziera ona da , neure cristinaubac,
 ez bacarric cristandadian ; ez bada baita mun-
 du guztian , ta gentilen artian bere , ardura-
 ric andijena daroiana , ta cer eguinic gueijen
 emoten davena. Menturaz ez da legueguin bat
 ezaututen , gazte eria ondo azteco aguindu ez
 davenic. Escritura sagradubac ceimbat lecutan,
 ta ce ardura estubagaz aguinduten daven , esa-
 tia , laarrequi lutzetutia izango litziatque , guz-
 tijac daquijen gauza baten gainian. Aguinari
 guztien eguin biarra da , gazte eria ondo aztia.
 Baina leleengua , ta andijena gurasuena. Alperrie
 cansauco dira Cura jaunac , Alcate jaunac , era-
 cus-

(1) 4. Reg. C. 3.

cuslac , ta Compesoriac , umiac Jaungoicuaren bildur santuban , ta lotsa onian azten , gurasuac ardura onagaz lagunduten ez badeutsee. Gurasuen contura ichi dau Jaungoicuac seme alabeen aziera cristinauzcua. Cer eguin andija da. Buru auste andicua da. Baina , gurasuac, eguin biar dozuna , da , Jaungoicuaren zamai bildurgarrijetati librauco bazara. Era batera batuta , iminico deutsudaz ceuben umen aziera oneraco eguin biar nausijac , erreztuago goguan euqui daguizuzan.

1. Pecatu eguiten davee gurasuac , seinic ez izateco gauza chaarra eguiten daveenian , seinac azteco nequia gaiti 2. Pecatu eguiten davee, amaren sabelian dagan seinia , ilteco peligruban iminten daveenian euren erruz , dan moduban, dala. Bada cein jaijoteco daganari , vitzitzia quendu , ta cein jaijota daguana ill , bardin da, dino Tertulianoc (1). 3. Deungaro eguiten davee gurasuac , eurac libre egotia gaiti , euren erraijetaco prutuba amaren bularrian aztiac dau-can nequia gaiti, edo usadijo gaisto bati jarraitutia gaiti , beste premina bagaric , inori azteco seinia emoten deutseenian. Naturalezia bera lotsatuten dan pecatuba , da au. Jaungoicuac amari prestau deutsa , seinia bere bularrian azteco biar davena. Ta amac , neque pusca bat ez artutia gaiti , sosiguzago vitzi izatia gaiti , bere gorputza muaduco gustuetaraco libre euquitia gaiti, beste premina bagaric , inori seinia azteco emotia , da , naturalezia , ta Eleisa Ama San-

(1) Apolog. C. 3.

Santiaren espíritubac icutsi ezin daven pecatuba. Seinora andijac cirian Sara. Abraanen emaztia, Ana Samuelen ama, Rebeca Jacoren ama, ta beste seinora, ta Erreguina asco, escritura sagra. dubac, ta Eleisaco jazuac esaten deutchuben leguez. Baina euren bularretan azi cituben euren sabeleco prutubac. Ama Virginia guztiz santiac bere bular gozuetan azi evan Jesus bere seme bacar maitia.

Inoren bularrian azten dan umiari, nai otzagua eracusten deutsa gueijenian gurasuac. Baita umiac bere gurasuari. Bularragaz iraasten jaco umiari, ez guichitan, azten davenaren gorputzeco gachac, ta arimaco guraarijac. ¿Bularra emoten deutsana da gach duna, garbitu biarrecua, edo ondo garbitu bagacua, Inude asco oidirian leguez? bada seinari ezarten deutsa, edo ezarri leguijo bere gacha. ¿Seinaren azizailia da, vicijo gaistuetaqua, nasaija? bada umiac aguirico dau, isteen bajaco, noren bularra artu evan. ¿Ta ezin jazo leiteque, seinu trukeeta? Ah gurasuac! Bein baino gueijagotan jazo leitequian gauzia da. Ta oraindino urte asco ez dala, jazonan Prancijaco Erreinuban onelaco sein trukeeta bat, Inudiaren descuido bat zala mediyo. Inudiac subaren onduran ichi evan seinu ardura guichigaz, ta erre jacon arpeguija pusca bat. Seinu zan consejeru baten alabia. Ez zan azartu inudia gurasuai jazo tristia esaten. Quedu evan inutsein eguijazcua, ta azi evan beste ume bat aren lecuban. Ta viurtu eutseen gurasuai inoren umia, euren balitz leguez. Ez-

con-

condu eveen gurasuac seinora andi. Ta ezconduta guero, autortu evan inudiac bere descuidua, ta engainuba. Azaldauzan trucadia, birrinduzan ezcontzia, zabal dauzan escandaluba, ta oni darraicon guztia (1). Escarmentau bada, gurasuac, inoren gachagaz, ta azi ceuben umiac ceuben bularretan, inundi aldaguizunian. Ama baten ondraric andijena da, dino San Ambrosio (2), sabeleco prutaba bere bularrian aztia.

4. Seme alabei gurasuac zor deutsen aziera onaren contra, ta chito deungaro eguina da: Lau bost urtera eldu ezquero, edo leenagoti, umiac eurequin oian eratzotia. Baita mutilchubac, eta nescachaac alcarregaz eratzotia bere. Baita guela baten guztientzat oiac alcarren onduan euquitia bere. Gauza onetan nasaitasun andija icusten da pamelija ascotan. Errial bat, edo bi ez castetia gaiti, vitzi dira gurasuac, eta umiac, ta ascotan otseguinac, campocuac, ta ehecuac, guizonezcuac, ta emacumiac cristandadiaren lotsagarrija. Ugazaba jaunac, edo echejaubiac ez dauquee erru guichi sail onetan. Errentia osoric artuten davee, ta zucen. Baquijee, errenteru pobriac, ta menturaz laster echetti urteteco bildurragaz daguanac, pamelija guztija casic erabatera eratzoten davena, oe bat nun aparte imini, eche barruban ez daucalaco. Ta orregaiti, ez dau ugazabac oe lecu apart bat eguingo bere echian.

¡Oh Gurasuac, edo ugazabaac, zarianac

cc

za-

(1) Marchant. Candel. mist. tract. 8. Lect. X. prop. 3. (2) Lib. de Abran. C. 7.

zariala! Ez daquizu ondo, ta jaquia biar ce-
duque, ceimbat arima inocenteri pecaturaco vi-
dia emoten deutsezun. Ceimbat malecija sortu-
ten dan umen goguan, ta arimetan ceuben ar-
dura guichija gaiti, ta concienciya nasaija gaiti.
¿Ta ustedozu, ez deutsula Jaungoicuacon-
tu artuco bai gurasuoi, ta bai ugazaboi, ume
inocenten arimac alan gacheraco goixtartu, ta
arguitu dituzulaco? Pensau eguizu ceubec, ce-
ocasinoia dan. Ta ez eguizu sinistu, umiac di-
riala. Salomon gaiti esatenda, amaeca urte ci-
tubaneco, aita zala (1).

5. Deungaro eguiten davee gurasuac, umiañ
bost sei urte ditubeenetí aurrera, edo leenago-
ti verba chaarrac, gacharen icenac, ta beste
eurenez pecatu dirian gauzaac, parcatutiaz. Ume-
tati icasten danac, iraungo dau zaartu artian,
dino Espiritu Santubac. Chiquitati oquer azten
dan landaria, nequez zucenduten da, sutara
artian. Chiquitati gurasuen erruz gaisqui azten
dan umia, sarri juan oida impernucos sutara,
zucendutera, edo beti erreetan oquer egotera.
Guraso arro ascoc, umen zazpi zortzi urteco
pecatubac, lotsagalduco querijaac, ta verba
ezainac vanidadez contaui oi ditubee, gauza an-
di batzuc balira leguez. Ez eguijozu bada umia-
ri parcatu chiquitati, guero berac eguitia, edo
esatia, ondo ez dana.

6. Deungaro eguiten davee umiañ dotrinia,
biar dan moduban, eracutsten ez deutsenian.
¡Oh Guraso, errucarrijac, ta ume desdichaubac
gau-

(1) S. Garon. in epist. ad vital.

gauza onetan! Leleengo icasiquizunian esan da cerbait onen gainian. Baina esan aldedin guztia, utsa da, gurasuac contura ecarteco euren eguin biar andi onetan. Oracinetaco verba banaca batzuc ozta goguan euqui eraguitia, ta areec bere ascotan oquer, ta naastauta, da, guraso ascoc umiai emoten deutseen cristandadeco eracutsi guztia. Gueu salbetaco, popuertza jaquin biar ditugun, eguija santuben ezauberario ez dauquec urrineti bere seme alaba ascoc, aita, ta ama edu azita, egon arren. ¡Ce mirarija da, guero gurasuac bere ez jaquitia! ¡Ce mirarija, guraso, ta ume inos dotrinia ondo icasi bagario, vitzi izatia, ta illtia! Beste auzo ingurueco, ta errico contu guztia, ta bai asco, onac ez dirianac bere, icasten ditubec umiac ziatz, ta chito laster. Jaungoicoa serviduteco, ta arimac salvetaco, popuertza biar doguna da, zorionian, edo zori gaistuan, icasi ecin daveena. Gurasuen betico cantia, ta achaujiia da: Umiai dotrinia eracutsi ezin deutseela. Baina obeto esan legui; gurasuac eracutsi gura ez deutseela. Umiai dotrinia eracusten, edo ez dauqueela, edo cansau gura ez daveela. Edo arguiruago esateco, guraso ascori, umiac dotrinia jaquin, nai ez jaquin, bardin deutseela. Guraso ascoc ardura gueijago dauquec, cinuan San Juan Crisostomoc (1), echeco ganadubaquin, seme alaben arimaquin baino. Ariman epai garratza eguiten daven paltia, da bada, cristinaubac, Gurasuac chiquitati umiai dotri-

(1) Hom. 59. in Math.

nia sustraiz ez eracustia.

7. Chito deungaro eguiten davee gurasuac, umiai bidauac; eta maldecinoiac ezartia. Exemplu, edo eracutsi chaarra da au umentzat. Gurasuen maldicinoiac, dino Espiritu Santubac (1), ondatuten dabela eche guztia. Gach opa bagaric izan arren, gaisqui eracusten jacue umiai bidauagaz, ta maldecinoiagaz. Zenovio Santubac dinuan amac, jazo zatequian, gachic ez opa izatia bere umiari. Baina, ume chicarac ura escatu eutsanian amari. Amac purijaz ura esquinita, esan eutsan umiari. *Autsa, edaic diabruba*. Ta bertati sartuzan diabruba umiaren gorputzian (2).

8. Deungaro eguiten davee gurasuac, umiai meza santuba entzutia, compesetia, comulguetia, ta beste arimiaren oneraco biarrac eguitia, errazoe bagaric eragozten deutsenian. Gauza onetan gurasuen eguin biarra da, zazpi urte ditubenco, eracutsi dotrina santuba, edade atan izan leitequian onduen. Bialdu orduti meza santuba entzutera. Ta baita Pazcuetan cura jaunagana compesetara bere. Ta andi aurrera, cura Jaunac aguinduten deutsenian, sacramentubac errecibidutera, ta jaijan jaijan meza santuba entzutera.

9. Deungaro eguiten davee gurasuac, seme alabei isteen deutsenian; gura daven lecubetara juaen: nai daveen lagunaquin ibiltan; nai daveen moduban jantzten; ta gura ditubeen verba,

(1) Eccl. C. 3. (2) Surio in vit. S. Zenob.

Icasiquizunac.

195

Ba, ta canta ezainac esaten, edo beste pecatubac eguiten, daquijeela. Emen sartuten da, cristinaubac, guraso ascoren pecatu pillo andi bat, ez, iracatsi chiqui baten ece, liburu baten bere conta ezin leguizan beste. ¿Ta nos eragotzi biar deutseez onaco gauza chaarrac gurasuac umiai? ¿Nos? Beti. Umetati, chiquitati asita gurasuen aguinduban dagozan artian. Baina endamas amar, amalau, amazortzi, oguei urtian irago artian, ta Jaungoicuaren bildur santubac euren arimetan sustraijac eguin artian. Gaztetan ereiten badozu, guraso onac, ceuben seme alaben vijotzetan Jaungoicuaren bildur santuba: virtuten amodijua; Jesusen, ta Ama Virgina guztiz santiaren devocinoe biguna; Jaungoicuaren verbia entzuteco, sarrichutan compesetaco, Eleisaco cer eguin santubetara juateco, Ceruco gauzaac entzuteco, icasteco, ta esateco gogo presta, ta arguija. Iminten badeutsezu euren arimaan erijotziaren, juicijuaren, ta impernubaren bildur santuba; pecatubaren gorrotua: munducovanidaden, ibilera nasaijen, jantziara erdi biloxen, olgueta pecatuzcuen, edo pecaturaco peligrucuen empaduba, ta gogo vetia, Jaungoicuac gura ez ditubalaco: empin, eracusten badeutsezu ceuben umiai chiquitati, verba onac esaten, ta lotsa ona guztiai ecarten; ija oguei ogueta bi urtera eldu ditezanian, eurac zaintuco ditubee euren burubac, ta euren arimac, edo obeto esateco, Jaungoicuac gordeco ditu ceuben seme alabac ocasinoe guztietati.

Baina parcatuten badeutsezuz, chiquitan pal-

palta chiquijac , ta azichubago eguinda , andi-
chubaguac : Azten badituzu , guizon izatia , ta
eristinau izatia cerdan ez daquijeela , alemanija
batzuben guisaan ; izango dira ceuben zaartza-
co desondragarriac , ta negar garriac , ta ez
guichitan condenagarriac ; Oh ! Ez daquit , ce
arimagaz egoten dirian guraso asco , zucen da-
quijeela , euren seme alabac gabaz , ta egunaz
escandaluba emoten daveela , adisquide chaarra-
quin daviltzala , eche sospechacuetan sartuten
diriala , jantzi desonestubac darabilezala , vi-
guira , sarau , ta pecatuzco olguetara paltetan
ez daveela , tabernetaco jocuetati urteten ez da-
veela , ta beste onaco pecatu aguiriac irunsten
ditubeela. Ez daquit , dinot , ce arimagaz lò
eguiten daveen guraso ascoc , onaco vitzirza gal-
dua , ta desondragarria euren umiai parcatu-
ten deutesenian . ¡ O ceimbat bidar , San Bernar-
doc dinduan leguez , gurasuac echian seguru dau-
quien bildotsa , ataijan dagnan otsuari ateraten
deutsen ! Seme alabai gavian echeti olgueta pe-
catuzcora isten deutseenian , impernucio otsuari
entreguetan deutsez euren umen arimac . ¿ Ta gu-
rasuac juango dira pena bagaric lò eguitera ?
¡ Ah galdu biarra !

Aitu eguizu bada , neure entzula onac , ceu-
ben arimen erruquija gaiti . Ta aitu eguizu gu-
rasuac , ceuben errajetaco prutuben amodijua
gaiti . Jaungoicuac eguiten deutsun escari nausi-
ja , da , seme alabaac ceruraco aztia . Escritura
sagraduban milla bendicinoe andi esquintzen
deutsez Jaungoicuac munduraco , ta ceruraco ,

Itasiquizunat.

197

seme alabaac Jaungoicuaren bildur santuban az-
ten dituben gurasuai. ¡Oh ce dichosuac Elcana,
ta Ana Samuelen gurasuac! ¡Ce zorionecua Job
santuba, bere umen arimaco ona gaiti egunero
oracinoia eguiten evana! ¡Ce bedcincatubac
Abraan, Tobias, Aita semiac, ta Macabeo
anaien Ama santia, euren umiac pecatubac egui-
tia, baino andaan icustia naijago evenac! ¡Ce
ordu onecuaac aimbeste Erregue, ta Erreguina,
Eleisaco jazuac esaten deuscuben leguez, euren
cereguinen artian arduraric gueiljen, seme alabaac
ceruraco azten, imini evenac! ¡Oh Gurasuac!
Banaan, banaan contaui biar litzaatequez ceuben
eguitadiac.

Baita Jaungoicuaren zamaijac bere, guraso
ardura bagacuen contra. Zaartza desondrauba,
penazcua, lotsazcua, sepulturaraguino jarraitu-
co deutsana, laugarren belauncraguino amaitu-
co ez dan castiguba, ta beste onaco zamaijac
dauquez euren contra, seme alabaac dotrina
onian, ta Jaungoicuaren bildurrian azten ezdi-
tubeen gurasuac. Eli baten castiguba da guztien
escarmentu ona. Bere semiac castigau ez cituba-
laco, biar zan duina, Jaungoicuac ill euan Eli
seme bijaquin.

¡O Jaungoico parcatzailia! Lotu eguizu ceu-
re zamañ bildurgarrija. Zabaldu eguizu ceure on-
tasunaren arguija guraso guztien arimetara. Celo
santu bategaz, ta indar itzalsu bategaz ceure
ezauberaan, ceure bildurrian, ceure lotsa onian,
ta ceure amodijo bigunian azi daguijezan, ceue
gracijaz, ta mesedez, ondo azteco, ta euren
zaart-

zaartzaco pozgarri , ta ondra izateco , emon deutsezuzan seme alabaac. Guraso , ta ume , guztia euguí daguijen dichia , ceu ceruban beti goceetaco. Amen.



II. ICASIQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan : *Seme alabaac gurasuai zor deutseena.*

Gurasuen eguin biarrac badira andijac , seme alabaac Jaungoicuaren bildur santuban azteco onec gurasuai zor deutseena , ez da , ardura guichiago biar davena , neure entzula onac. Gurasuac dira , Jaungoicuz ostian gueuri izatia emon deutcubeenac. Eurac dira , sarritaco icerdiagaz , ta nequiagaz , cer jan , ta cer jantzi pretauta , emon deutcubenac. Gueure Ama ona da , bere sabelian arduraz , ta contuz luzaro erabili guinduzana. Alaz , ta minez nequez arguitara atera guinduzana. Sarri lua galduta , sarri janari ichita , aldatu , garbitu , isildu , berotu , ta zaintu guinduzana. Gueure guraso zintzuac dira , gueure umetaco mainaac , min bagaco negarrac , ta iletac , gurari , ta tema er negagarri guztia , iru edo lau urte osuetan , edo gueijaguan , ixilie , ta carinoz , parcatu euts-cubezanac. Eurac azi gaitubee. Eurac vitzi izaten eracutsi deutcubee. Eurac Jaungoicuaren le-
gue

Icasiquizunac.

199

gue santuba eracutsi deutcubee. Eurac jantzi gaitubee. Eurac emon deutcubee, edo escolia, edo opicijua, edo daucagun vitzi garrija. Ceimbat naibaga, ceimbat castu, ceimbat ardura, ceimbat lo galdute, ceimbat neque, dinot, padecidu ez ditubee guraso tristiace gure oneraco? Baina eguno gauza on bat eguin ez baleutseubee bere gueure gurasuac, sortutia, ta eguitia baino. Gurasuac dira, ta gurasuac dirialaco, zor deutsegu. 1. *Maitetasuna*, 2. *Ondria*. 3. *Obedutia*. Ta ara emen, cristinaubac, iracaste onen gueija. Entzun eguizu gogo vitzijagaz.

I. Zor deutsegu gueure gurasuai, dirianac diriala, nai onac, ta nai arin onac, nai ondraubac, ta nai desondraubac, nai ondo azi gaitubenac, nai gaisqui azi gaitubenac, gurasuac dirialaco; zor deutsegu maitetasuna. Dinot, neure entzula onac, maite izan biar ditugula gueure Aita, ta Ama, beste proximo guztia baino lenago. Bada guizonaren izatia, Jaungoicuz ostian bestec inoc bere emon ez deutcuna, emon deutcubee gueure gurasuac. Ta au da, naturalezan daucagun dicharic andijena. Zor deutsegu gurasuai. 1. Arpeguiera biguna, verba humildiac, ta lotsa ona. 2. Opa biar deutsegu gurasuai baquia, osasuna, vitzi izateco dicha ona, ta zaartza lucia. Ta onec baino gueijago, arimaco gracia, erijotza santuba, ta Ceruco gloria. 3. Eracutsi biar deutsegu, ta aituten emon biar deutsegu, aguirico seinaliagaz, gueure vijotzian, ta ariman eurentzat daucagun nai maitetsuba, ta opa ona, eriac, ta ordubac esca-

tuten davenian. 4. Erregutu biar deutsagu Jaungoicuari, gueure gurasuen arimaco, ta vitzitzaco oneraac gaiti, vitzi dirian artian, ta ill ditezanian euren arimac gaiti. Au da gueure gurasuai zor deutsegun maitetasuna, edo amodijua. Ta onen ondoric zor deutsegu ondria.

II. Laugarren aguinduban, Jaungoicuac verba arguijaquin escatuten deutcuna, da, Aita, ta ama ondretia. ¿Cer da bada *ondretia*? Norbait ondretia da, estimacinoiaren, lotsa onaren, uste onaren, ta opa onaren seinale aguirijac ari emotia. Alan gurasuac ondretiac gauza asco escatuten deutcuz. 1. Beti verba ondo eguin biar dogu gueure gurasuac gaiti, dagozan lecuban dagozala. 2. Gueure gurasuac euqui arren paltac, ta izan arren deungaac, ez ditugu euren paltac contau, edo azaldau biar; ez bada Jaungoicuari erregutu eurac gaiti. 3. Entzun, ta artu biar ditugu esquer onagaz, ta nai humildiaz, Aitac, eta Amac emoten deutcubezan eracutsi onac, eta conseju santubac. 4. Lagundu biar deutsegu aleguin guztijagaz Aitari, ta Amari euren premia ordubetan. Bai gaixoric dagozanian; bai inoc perseguiduten ditubanian, edo gaisqui eguin gura deutsenian; bai cer jan, edo cer jantzi ez dauquenian; ta endamas arimaco peligruban dagozanian.

5. Ardura andija zor deutsee seme alabac gurasuai, gaixoric dagozanian gurasuac, Sacramentu santubac errecibidu bagaric, ill ez ditezan; ta erijotzaco ordu estuban euqui daguijezan, cristinaubac nai oi ditubeen arimaco socorrubac.

Leasiquizunac.

201

6. Seme alabac cobru emon biar deutsee cint-zoro, eurai jagocuenez gurasuen azqueneco nai-jai, edo vorondatiai, ceintzuc gueratu oi dirian testamentuban, edo verbaz esan da. Au guztiau eguin biar davee seme alabac, alizatiac, eriac, eta preminiac escatu, ta aguinduten deutsenian, gurasuac ondretaco, Jaungoicuac laugarren aguinduban escatuten daven leguez.

Sinistu biar dau cristinaubac, gurasuen contra umiac eguiten ditubeen pecatubac, diriala chito Jaungoicuaren gorrotocuac. Pecatu guztiai deutsee Jaungoicuac gorroto. Baina batzuc Jaungoicuaren gorroto andijagua dacarree, beste batzuc baino. Aparteco marquiagaz seinalauta dagoz Escritura sagraduban. Ta onetaricuac dira seme alabac gurasuen contra eguiten ditubeenac. Aitari, edo Amari becoqui illuna imintia; arpegui asarria eracustia; verba astunac, gogorrac, ta itzalsubac esatia; euren paltaac, ta leenago-co descuiduac arpeguijan ezartia, edo euren ondoric esatia; gurasuai burla eguitia; daquiyeela, atsacabaac, ta penaac emotia; gurasuen esan onac, ta conseju onac, ta santubac desprecijetia, edo barregueitizat entzun, ta contetia; errazoe minberequin, ta lotsa chaarragaz bildurtuta, isilduta gurasuac imintia; preminan dagozanian, nai justiciaren escubetan, nai carcelan, nai gaixuan, nai ez orduban, edo pobrezan, nai arerijo baten gachian, edo persecucionian, nai arimaco biar orduban; orduban, dinot; gurasuari ez lagundutia, ta esan dan moduban, gurasua umiac trateetia, da, Jaungoi-

goico onari, ta guraso guztien ondria zaintu-
ten davenari, esateco moduban, vijotzaren er-
dijan icututen deutsan pecatu madaricatuba, mal-
dicinoe ascogaz zamaituta daucana.

Aitari atsecaba emoten deutsan, ta Ama-
ri igues eraguiten deutsan semia, edo alabia,
dino Espiritu Santubac (1); izan dedilla deson-
drauba, ta desdichauba. Aitari, edo Amari
burla eguiten deutsan umiaren veguija, dino
Espiritu Santubac (2) picau daguijeela ibaico
belaac. Edo arguiruago esateco: jan daguijeela,
ta iruntsi daguijeela alaco ume lotsa gaistocua
impernuco pristijaac. Aitari, edo Amari bidao
eguiten deutsan umia, dino Espiritu Santubac
(3), ill dedilla, condénau dedilla, ta bere odo-
la bere contra izan dedilla. Gurasuac badauque
seme necijo bat, edo lotsa galduco bat, euren
esana eguia gura ez davena, eruango davee
Juecen aurrera seme gaistua, ta esango deutsee
gurasuac Juezari: *Gure seme au lotsa chaarre-
cua, ta necijua da, gure esanae, ta conseju-
onac desprecijetan ditu. Ez deutsee obeidu gura.*
*Jan edan gaistuetau, luxurijetan, ta bide gal-
dubetan dabil.* Orduban Juezac aguinduta, er-
rico gentiac arrica ill daguijeela, gurasuen esa-
na eguin gura ez daven seme lotsa galducua.
Quenduco dozu ceuben arteti alaco ume neci-
jua. Ta Israelgo gentiac entzuten davenian, ica-
ra eguingo dau. Au eguiteco, dino Espiritu
Santubac, gurasuen desondraco, ta esquer cha-
arre-

(1) Prov. C. 30. (2) Levit. C. 20. (3) Exod.
C. 21.

Icasiquizuna.

203

arresco seme ezi bagacuaquin (1). Madaricatuba izan dedilla, dino azquenian Espiritu Santubac, Aita, ta Ama ondreetan ez dituban umia: Ta gente guztia esan daguijala: Amen (2). Maldicinoe oneec guztioe, eta gueijago ezarten deutesez, neure cristinaubac Jaungoico andijac bere Escritura sagraduban lotsa chaarreo, esques chaarreo, ta ezi gaistoco seme alavai.

¡Oh Ce bildur izan biar daven, bai gurasuac, ta bai umiac! Gurasuac umiac ondo azteco chiquitati, Jaungoico andijaren vildur santuban, zama! icaragarri oneetati libre egon ditezan. Ta umiac euren gurasuac amau ta ondrau daguijezan carinoz, lotsa onian, ta Jaungoicua gaiti, Jaungoico altubaren asarriac castigau ez daguizan. Can, Noeren semia, bere aitari erreberencia galdu eutsalaco, zan, ta da madaricatuba impernuban. Ez bera bacarric, ez bada bere ondorenguetara, bere seme alabeetara bere eldu zan Jaungoicuaren maldecinoia. Esau bere aitaren aguinduba eguin ez evalaco, edo aitaren esanaren contra pecatu eguin evalaco, galdu evan majorazgua, galdu evan ondria, galdu evan atimia, ta da madaricatuba impernuban. Absalon, Daviden seme lotsa gaistocua, jaguizan Aita onaren contra. Baina Cetrubac perseguidu evan, ta azquenian iru ezpatagaz josita, arimia entregau eursan Satanasi. ¡Baina noc conta, Jaungoicuac seme alaba gaistuen contra eguin dituban castigubac? Esan legui, pecatu genero guichi dagozala, Jaungoicuac,

(1) Deut. C. 22. (2) Idem C. 27.

cuac, munduti asita, pretago, ta aguirijago
castigau ditubanic, gurasuen contra umiac egui-
ten ditubenac baino. Guichitan icutsi izango da,
seme bat, edo alava bat bere gurasuari lotsa
chaarra ecarri deutsana; nai baguiac, ta atse-
cabaac arpeguijan emon deutsazana; ezaubera
ona, ta premina orduban socorruba ucatu deut-
sana; modu chaarrian, ta remaz justicijati jus-
ticijara erabili davena; gurasuaren abisu santu-
bai, ta conseju onai burla eguin deutsena; di-
not cristinaubac, guichitan, edo nequez icusi
izango dala, onaco seme bat, edo alaba bat
zaartza onian auzuac, ta echecuac estimetan da-
veela, eritjotza ona eguiten.

¡Oh, ce bildur garrijac, umiac gurasuen
contra eguiten dituben pecatubac! Baina ¡Oh ce
ugarijac! Ez daquit, ala gurasuai Jaungoicuac
bialduten deutsen azotia dan; ala ume gaistuac
eurentzat presteetan daveena dan. Baina bai, gu-
raso ascoc negar eguiten daveela vijotz mingo-
chagaz, seme alaba gaistuac eraguinda. ¿Ez da-
goz ume asco, ta asco gurasoai maldicinoeca?
¿Ez davee beste ascoc, nai daveena eguiten-
echian gurasuen esquer gaistuan? ¿Ez davee ur-
teten echeti gavaz, ta egunaz, nai daveen le-
cura, gurasuac aguiraca, ta diadarca dagozala?
¿Ez dira sartuten, gura daveen echeetan? ¿Ez
dira egoten escandaluco lagunaquin? ¿Ez dira
ibiltan pecatuco lecubetan, Aitac, eta Amac
echian enqui ezinda? ¿Ez dagoz seme alaba as-
co, ez gurasuac, ez Cura jaunac, ez Juezac
ezi ezin ditubeenac? ¿Ez dagoz beste asco gu-

Itasiquizunac.

205

tasuai jotera eguiten deutseenac , ta joten ditu-
beenac? ; Ez dagoz guraso zaar asco , euren echea-
tan sobrauta , verba bat esaten azartuten ez di-
rialala , vartzartuta , isilduta , icaratuta euren
echian , semiac , edo alabiac , Erreinac , edo
Suinac , edo guztia becoqui astunagaz , ta ver-
ba gogorragaz agünduten deutseela , ta burla
eguiten deutseela? ; Ez dagoz guraso asco , eu-
ren izerdijagaz irabacita euquen pusquia , quen-
du artian , verba labanac , ta aguinzari andijac
umiac eguinda , sinistuta , engainauta , euquee-
na umiai emonda , guero gosiac illten , dago-
zanac? ; Ceimbat onetarico? ; Ceimbat guraso
zaarren quexac entzuten dira?

; Ah guraso desdichaubac! Ceubec olan por-
tau bacinian ceuben gurasuaquin , ondo mere-
ciduba , edo irabatziya daucazu , ceubei beste
aimbeste umiac eguitia. Baina ez dira orregaiti
ceuben umen pecatubac chiquijago. Erruquiric
gueijen emoten daveenac , dira guraso zaar ua-
tubac , edo ibili ezin dirianac. Euqueen guztia
umiai emon da , gosia iragoten , ta errazoe cha-
arrac entzuten vitzi dirianac. Alaco umiac nai
davee , guraso zaarac laster illtia. Baina onen
contra dira Jaungoicuaeren zamai bildurgarri,
esan dirianac. Eguija da , gurasuac izan leite-
quez deungac , ordijac , lapurrac , bidaotijac ,
ocasinoetsubac , baque chaarrecuac , desonestu-
bac , ta errazoe gaistoquetacuac. Au gurasuac
deungaro eguiten davee. Espiritu Santubac esa-
ten deutsee gurasuai bere : Ez daguijuela asar-
ratu eraguin , ta su artu eraguin euren umiai

Ver-

verba deungaaquin. Baina orregaiti, ez deutsa umiac lotsa ona, ta vorondate ona galdu biar gurasuari, esan dan leguez.

Jazo leiteque, gurasuac euren umiac gaisqui azi ditubenac izatia. Baina gurasuen pecatubac, eta gaisqui eguinac ez ditubee chiquituco umen pecatubac. Ta deungaac izan arren gurasuac, gurasuac dira. Ta gurasuac dirialaco, aguinduten dau Jaungoicuac, ondretaco. Con-tusic zucenenian jazo leiteque: alaco gurasuac, eta umiac munduban alcarren gozo bagaric, poz bagaric, edo obeto esateco, alcarren gorrotuan, ta bidaoca. vitzi izatia; guraspetati umeetara gach onec belauneti belaunera luzaro irautia; ta negargarri andijan guztia guraso, ta ume beste mundura euren pecatuben sari chaarra artzera juatia. ¡Oh ceimbat onetarico jazo iracurten dirian! Ondrau daiguzan bada, cristinaubac, gueurre gurasuac, Jaungoicuac aguinduten deutescun moduban. Baita obeidu bere, Jaungoicuac aguinduten deutescun gaucetan.

III. Seme alabac gurasuai obeidu biar deutsena, gauza jaquina da, cristinaubac. Nos, eta cetaraguino, da, icasi biar dana. Santo Tomasec dino (1): umiac gurasuai obeidu biar deutsela, arimiaren oneraco, ta echeco pamelijaren oneraco, ta covernuraco, biar dirian gaucetan. Alan umiac eguin biar davee gurasuen aguinduba. 1. Dotrina icasteco, meza santuba entzute-co, compesetara nosic bein, edo errazoezco demporan juateco, aguinduten deutesenian. 2.

Lu-

(1) 2. 2. q. 104. a. 5.

Lagun peligruczcuquin ez ibilteco, eche sospe-
chacora ez juateco, ta pecatuco ocasinoetati apar-
teetaco aguinduten deutseenian. 3. Verba, ta
canta desonestubac ez esateco, danza peligrucz-
cuetara ez juateco, ta liburu indecentiac ez ira-
curteco, aguinduten deutseenian. Oneec pecatu-
co ocasinoiac dirialaco (1). 4. Gavian echeti
premina bagaric ez urteteco, joco chaarretati,
ta tabernetati alde eguiteco, aguinduten deut-
seenian. 5. Escandaluco, edo modu chaarreco
jantzija eragotzen deutseenian. Umeen vitzi mo-
duraco ondo dan opicijua, edo icastia, aguin-
duten deutseenian. 6. Echeco biarretaco, artu
emoneco, ta saldu edosico gaucetan umiac obei-
du biar deutsee gurasuai, gurasuen aguinduban
dagozan artian. Gauza oneetan gurasuen esana,
ta aguinduba ez eguitia, beti da pecatu. Gau-
za andijan bada, pecatu andija, ta gauza chi-
quijan bada, pecatu chiquija.

Ez da popuertzacua, umiac gurasuai obei-
dulia euren estadubaren gainian. Jaungoicuac
emoten deutsa escubidia cristinaubari, Ceruba
irabazteco, onduen derichon, estaduba artute-
co. Ta gurasuac galarazo ezin leguijue umiari
estaduco libertadia. Eguija da, Eleisiaren Era-
euslaac dinuenez, pecatu da, umiac gurasuai
contu emon bagaric, eria daucala, edo eura-
quin vitzi dala, ezcontzia eguitia. Estaduba ar-
tutia, gauza andija dalaco, ta, edolabere, gu-
rasuac jaquin biar daveelaco. Umiac ez deutsee
obeidu biar gurasuai, pecatu eguiteco, edo pe-

(1) Catec. Rom. 6. precep. 2. 11.

catuco ocasinoe aguirira aguinduten deutseenian. Bada leenago da Jaungoicuari obeidutia, gurasuai baino. Ta Jaungoicuac aguinduten dau, pecaturie ez eguiteco, ez munduco guztia gaiti, ez mundu guztia gaiti bere.

Beguiratu eguizu bada, cristinaubac, celan maite izan biar ditugun gueure gurasuac: Celan ondrau biar ditugun, bai vitzi dirian artian, baita ill da guero bere: Ta azquenian celan obeidu biar deutsegun, ta eguin biar ditugun euren aguindubac, al izan ezquero, pecatu ez dirian gauzetan. Artu daigun Jesus maitiaren exempluba, cristinaubac, gauza onetan bere. Bada izanic ceruben, ta luurren jaubia; izanic Jaungoico eguijazcua; Jesus humildiac obeidu deutseen bere Amari, ta Aita ordecuari. San Joseperen, ta Ama Virginiaren esana eguiten euan. Jesusec munduban, dino Evangelijo Santubac. ; Oh Jesus guraso guztien gurasua! Eracutsi eguijezu bada guraso guztiai, euren umiac doctrina onian, humilde, ta cristinau eguijazco azten. ; Oh Jesus, Jaungoico gueure ona gaiti umetuba! Izan zaitez ceu seme alaba guztien guraso biguna. Artu gaizuz guztioac ceure graciaren, ta bildur santubaren catiapian. Vitzu eguizu gueure gogua, ceu maite izateco, ceu ondretaco, ta ceuri obeiduteco, beste guztiai, baino leenago. Ta ceure ondoric gueure gurasuai zor deutsegun maitetasuna, ondria, ta obidutia pagueetaco: Ta beti ceruban ceugaz vitzi izateco. Aitiaren, Semiaren, ta Espiritu Santubaren icenian. Amen.

III ICASIQULZUNA.

Ceinetan eracusten dan: *Aita santu Erromacuari Obispo Jaunai... Erregue Jaunai... zor deuseegun ondria, ta aguidubac eguitia.*

Esanda gueratu da, cristinaubac, leengo Icasiquizunian, laugarren aguidu santuban sartuten diriala, ez bacarric gurasuac, eta umiac; ez bada baita gueure arimen arduraraco, ta vitzitziaren conturaco Jaungoicuac bere ordian imini deuscuzanac bere. Ceintzuc dirian Elexa Ama Santiaren serbizailaac, edo Sacerdotiac, ta Erreinuben, ta errijen Burubac. Erregue Jaunac, ta aren ordian erriac gobernetan ditubenac. Oneec dira; leleenguac gueure aimen gurasuac; ta bigarrenac gueure aciendiaren, ondriaren, ta ascotan vitzitziaren gurasuac, edo gorde zailiac. Jaungoicuac aguiduten deutsu, onei guztioi, jagocuen moduban, ta lecuban, lotsa ona, ta errespeto ona ecarteco. Eurac ondretaco, euren aguidubac eguiteco, ta Jaungoicuari aparteco goguagaz eurac gaiti erregututeco.

Eguin biar oni, Cerubac escatuten deuscun leguez, cobru emoteco, itacusi onetan esango deutsut: *Cer zor deuseagun Aita Santu Erromacuari. Cer Obispo Jaunari. Cer Curaca Sacerdote Jaunai. Cer Erregue Jaunai, ta*

cer Juezai. Entzun eguizu, cristinaubac, icasteco gogo onagaz.

I. Aita Santu Erromacuaren da, Jesu Cristo gueure Jaunaren ordecoa luurrian. Eleisa guztiaren Buruba, Cristindade guztiaren pedeco, ta oitura santubetaco Aguintarija. Gueure arimen oneraco gaudetan Cardenal, Patriarca, Obispo, Erregue, Aguintari, ta cristinau guztia entzun biar deutseena. San Pedoren, ta aren ondorengo Aita Santu Erromacuen escubetan ichi ditu Jesu Cristo gueure Jaunac Ceruco Guitz Santubac. Aita Santu Erromacuari emon eutsan Jesus, gueure Librazailiac, guizonai pecatubac parcatuteco, edo ez parcatuteco alizatia, edo *Poderia*. Baita Eleisa guztien arduria bere. Aita Santu Erromacua, Eleisa guztiaren burubadin leguez, bera da impernucio etsaiaren, erege gaistuen, ta Eleisa Ama Santiaren arerijuen tiroric gueijen, ta andijenac artuten ditubana. Bera da, Jaungoicuaren socoruba, ta Espiritu Santubaren gracia onduen, ta ugarijen biar davena, Eleisa Ama Santia cõverneraco, edo zaintuteco, ta cristinau piel guztiai Ceruraco vide zucena eracusteco. Au gaiti estimau, ondrau, ta amau biardogu cristinau guztioe Aita Santu Erromacua, ta erregutu biar deusagu Jaungoicuari bere osasuna, ontasuna, aciertuba, ta arimaco gracia gaiti, guztien luurreco Guraso Nausija dalaco.

II. Obispo Jaunac gaiti beste aĩmbeste eguin biar dogu. Endamas gueure Obispo Jauna gaiti. Obispo Jaunac dira Apostoluben ordecuac luur-

Icasiquizunac.

241

Jaurrian. Eurac imini ditu Jaungoicua Erreina-
 beñan zabaldua. Aira Santu Erromacuaren ur-
 reengo, Eleisaco pedia, ta dotrinia zaintuteco,
 gordetaco, ta cristinau Pielai gorde eraguiteco.
 Eurac Sacerdote eguin biar ditubee guizonac;
 beti oinian egon dedin ordiaco Sacramentu San-
 tuba, ta vizi dedin guiza aldiric guiza aldira
 mundubaren amairaguino cristindadia, edo Jesu
 Cristoren Eleisia. Obispo Jaunac ezautu biar
 davee Sacerdote, Compesore, Predicadore, ta
 arima gordezailen jaquituriia, ontasuna, ta vit-
 zi moduba, Sacramentu Santubac, ta arimen
 eracuste ona, noren escubetan isten dituben, ja-
 quiteco. Obispo Jaunac dira gueure arimen gu-
 rasuac, ardura andijac, cer eguin andijac, ta
 goitu emoquizun estubac dauquezanac. Orregai-
 ti amau biar ditugu; estimau biar ditugu, ta
 jaso biar ditugu Obispo Jaunac. Ta erregutu
 biar deutsagu Jaungoicuari cansau bagaric eurac
 gaiti. Baita eguin bere eureen aguiodubac chi-
 to ciur, ta gogo pretagaz gueure guraso onac
 dirialaco.

III. Cura Jaunac, ta Sacerdotiac, bai Aba-
 diac, ta bai Prailiac, oraindino urragoti zain-
 tuten ditubee gueure arimac, impernucos etsaijac,
 mundu gaistuac, ta aragui labanac engainau,
 ta goitu ez daguizan ceruraco bideetan. Cura
 Jaunac, ta Sacerdotiac dira gueure arimen ar-
 guijac, gueure eracustaac, gueure gracijaren bi-
 deguinac, gueure arerijuen bildurgarrijac. Eurac
 dira gueuri cer eguin biar dogun eracusteco is-
 pilubac, gueure peligruben celatarijac, gueure

con-

conciencijen jaubiac, ta jaolaac, gueure pecatuben parcazaillac, pecatarijagaz Jaungoicuaren arteco Baqueguinac. Edo guztia verba baten esateco Malaquias propeta santubagaz (1), Sacerdoten ezpanac, ta aua dira Ceruco Iturri vitzijetaco gracijac, ta ontasunac gueure arimeta-ra iragoteco Gainubac.

¿Noc prediquetan deutsu Jaungoicuaren verbia? ¿Noc eracusten deutsu Jaungoicuaren naija? ¿Noc ecarten dau verba bigaz altara santura Jesus Jaungoico vitzija? ¿Noc arinduten dau zure conciencijaco cargua? ¿Noc parcatuten deutsuz ceure pecatubac? ¿Noc emoten deutsuz Sacramentu santubac? ¿Noc animau, sendotu, ta consoletan zaitu ceure erijotzaco ordu tristian? Cura Jaunac, ta sacerdotiac. ¿Ceimbat bidar elduzara compesoriaren oinetara, ceure pecatu andijac, ta ezainac larrituta, lotsatuta, bildurtuta, areen carga astuna jaso ezin dozula, casic izerdija darijazula, ta ceure salbaci-noigaz dudetan asten zariala? ¿Ta ceimbat bidar jaguizara compesoriaren beraren oinetati, vitzuta, poztuta, consolauta, ceure pecatu andijeen carga guztia berari ezarrita, beste bat bacinaleguez, inos peccaturic eguin ez bacendu leguez, Compesore jaunaren caridadia, celua, ontasuna, paciencija, moduba, ta ataraco alizatia, dala medijo? ¿Ceinec munduban, bestec eguin eusquezun á mesedia? ¿Ceinec bestec emon eusquion orduban zure arima triste, ta larriari á baquia? ¿A poza? ¿A atseguina? ¿A so-

si-

Icasiquizunac.

213

siguba? ; A segurutasuna? Munduco batec bere ez. Compesore batec baino , bestec ino: bere ez luurrarren gainian.

Sinistu daigun bada , cristinaubac , Jaungoicuac emon deutzuzala Eleisa guizonac gueure arimen oneraco. Jaungoicuaren ordecuac diriala luurraren gainian. Beguiratu biar deutsegula errespeto andijagaz. Amau biar ditugula, gueure guraso onac dirialaco. Eguin biar ditugula euren aguindubac, sailari jagocan moduban. Estimau , zaintu , ta jaso biar dogula euren ondria. Sinistu biar dogu , chito pecatu andijadala , Eleisa guizonac , nai Aita Santu Erromacua , nai Obispo Jaunac , nai Cura Jaunac, nai beste Sacerdote, edo Religiosuac aotan gaisqui erabilitia ; areen esanen , ta aguinduben gainian burla eguitia ; edo Eleisa guizonac desprecijetia. Jesu Cristo gueure Jaunac ichi cituban bere ordecozat Eleisa guizonac , ta berac esan eutseen guztiai : *zeubei entzuten deutzunac, neuri entzuten deust , ta zubez desprecijeetan zaitubanac , neu desprecijetan nau* (1).

Jaungoicuaren aguindu santuba icusi ezque-ro , Eleisa guizonac ondretaco , ¿Cer esan legui , neure entzula onac , aimbeste verba ezain, ta desondragarri entzuten dirianian Sacerdote Jaunac gaiti? Edo dala ecandu galduba gaiti, edo dala conciencia nasaijac gaiti, edo dala, or-raco pede gaistoco errijetati Espaina Sagradura etorri dan iracatsi madaricatuba gaiti , ija esan legui : Cristinauben cereguinetati ez dala

chi-

(1) Luc. C. 10.

chicarrena, Eleisa guizonen paltac jaquiria, esat-
 tia, entzutia, gueitutia, azaldeetia, ta zabal-
 dutia. Cain madaricatuba leguez, arimaco gu-
 rasuen descuido bat icusi daijeeneco, arin arin-
 ga, pozca, ta barreca duaz, aguiiri dirianai
 contetara. Abade baten, edo Praile baten pal-
 ta bat, guzurrezcua, edo eguijazcua entzuten
 badabee, guztia sarian sartuten ditubee, ez
 deustee parcatuten euren miin gaistuagaz, ez
 zaarri, ta ez gazteri, ez sendori, ta ez argali.
 Eleisaco estadubaren contra, Eleisa guizonen
 contra dira tiro guztia deempora desdichau one-
 tan. Sospechiaco, ta erichico paltaac, Sacerdo-
 tenac izan ezquero, salduten dira, ta edosten
 dira pocic eguijazcotzat. Destajuzcuac, zucent-
 zat. Ta aguiricoric ez badauca, intencinoia
 izango dau chaarra. Asco da Eleisa guizona iza-
 tia, paltsua, edo gaistua izateco munduco as-
 coren miinian. Orain esaten dodan au berau
 gaiti, pensauco dozu ascoc, neure ondria jaso-
 ten dodala. Bada jaquin biar dozu, naguan le-
 cuban nagualaco, ta alan verba eguitia ceuben
 arimen calte andijan dalaco; ta Eleisa guizonen
 ondra ona onan erabili esdaguizun, esaten deut-
 sudala. Bestelan zuben esanac pena andiric emo-
 ten ez deustee.

Ez dogu esaten, cristinaubac, Eleisa guí-
 zon guztioe gariala santubac. Ez bada, Eleisa
 guizon guztiai zor deutsegula lotsa ona, ondra
 ona, ta maitetasuna. Au Jaungoicuarren aguindu-
 ba da. Guztia eguin biar daveena da. Ez da-
 go estaduric paltadunac ez daucazanic. *Nire es-*

Icasiquizunac.

215

Saluba aibat onena izan arren, dino San Agustinec (1), guizona nas, ta guizonen artian vitzi nas. Ez nas azartuten, dua santuba esanaz, neure echia obia dala, esaten, Noerena baino; baina an bere bat condenau zan. Edo Abraanena baino obia dala; baina andi bere Jaungoicuaq Ama semiac campora bota cituban. Edo Isaac Patriarca Santubarena baino obia dala; baina an bere seme bata gaistua zan, Edo Jacorena baino obia dala; baina an bere entzuten da, semiac senidiagaz pecatu eguin evala. Edo David Erreguiarena baino obia dala; baina an bere seme batas arrebiagaz pecatu eguin evan. Ta bestia Aita mansuaren contra armaac artuta, jaguizan. Edo Jesu Cristo guere Jaunagaz vitzi zan pamelija, baino obia dala; baina an bere amabiren artian, Judas bat paltua zan, ta Jesus, bere Aita maitegarrija saldu eutsen Judegubai. Ez nas azartuten, dino azquenian santubac, neure echia, edo estaduba obia dala, esaten, Ceruba baino; baina Ceruti bere jausi cirian Ainguerubac impemura.

Onaco humildadiagaz, ta euren buruben ezauberiagaz verba eguiten davee Eleisiaren gurasuac, estaduric santubeneco paltaac, ta palta-dunac gaiti. Ez mundutarrac leguez, sacerdote baten palta bat icusi, edo entzun daguijeneco, barre, chistu, gueitu, zabaldu, ta sacerdote guztiai ezarri. Ezcondu batec adulterijuac eguiten ditubalaco, esaten dozu, ezcondu guztia

ff

(1) Marchant. Ort. Past. l. 3. trat. 3. Lect. 2.

diriala adulterijo guinaic? ; Ezconduben artian ordi asco dagozalaco, lapur asco dagozalaco, drogueru asco dagozalaco, logreru asco dagozalaco, paltso asco dagozalaco, codicioso asco dagozalaco, arro asco dagozalaco, zequen asco dagozalaco, zital asco dagozalaco, esaten dozu, ezcondu guztia diriala alacuac? Ez. Ceuben estadubaren ondria nai dozu gorde daguizuben, gaisto asco estadu atan egon arren. Bada Eleisa guizonen estadubaren ondria Jaungoicuac bere contura artuta dauca. Ta bein baino gueijagotan castigu icaragarrijaquin aituten emon dau, berac zaintuco davena.

Moises sacerdotiaren contra murmurau evelaco, lepra gaisto betegaz jantzi eban Jaungoicuac Maria, Moisen beraren arrebia. Core, Datan, ta Abiron Aaron sacerdotiaren contra murmurau evelaco, ta sacerdote jauna desprecijau evelaco, lurrac iruntsi cituban vitziric impernura. Eliseo propeta santubari burla eguin eutseelaco, berrogueta bi mutil ito cituben erabatera otsuac. Elias Jaungoicuaren sacerdotia desprecijadu ebalaco capitan batec, Ceruti jatsitaco subac bertan erre eban capitana soldau guztiaquin. ; Ah cristinaubac! Jesu Cristo bera desprecijetia, da, sacerdote Jaunen contra verba eguitia. Eracutsi lecuban jarrico dira sacerdotiac, dino Jesu Cristoc (1); ta eguizu zubeac, eurac esaten deusubena; ta ez eguizu eguin, ona ez bada, eurac eguiten daveena. Onogaz eracusten deuseu Jesus maitiac, Eleisa guizonen paltaac be-

(1) Math. C. 13.

Itasiquizunac.

217

bere contura dagozala. Ta cristinaubari jagocana dala, sacerdotiac ondreetia, ta euren eracutsija eguitia.

IV. Erregue Jaunai bere zor deutseegu laugarren aguinduban lotsa ona, aguindubac eguitia, ta maite izatia. Erregue Jaunac dira Erreinu guztiazen Burubac. Jaungoicuaaren gaucetara co leleengua dan leguez cristindade guztian Aita Santu Erromacua, alan gueure vitzitzaac, aciendaac, ta ondria munduban baque onian zainuteco, dira Erregue Jaunac leleengua euren Erreinuban. Erreinu batec ceimbat arerijo, ceimbat gachequilla, ta ceimbat ardura quizun daucazan, esaten, ez da errez. Guerraac, pestiac, gose urtiac, lapurretaac, auzi gaistuac, bide bagaco erijotzaac, alper ascoren naija eguin ezinac, ta beste gueure burubetara etorten ez dirian, ta gueure oneraco dirian sail andijac, gau, ta egun biarran daravilez Erregue Jauna, ta berari urrengo lagunduten deutseenac. Esan guinai, cristinaubac, ez daguala eguin quizun bat, ardura gueijago, buru auste gueijago, nai bague gueijago, ta arimaraco, ta gorputzeraco peligru gueijago daucanic, Erregue Jaunarena baino. Ta guztia gueure baquia, vitzizia, osasuna, ondria, ta euquia zainuteco.

Orrégaiti guztion eguin biarra da: 1. Gueure Erregue Jauna, Cristoren ungiduba dan leguez, bai ondreetia esquer oneco ezau beniaz, ta errespeto andijagaz. 2. Jaungoicuari erregututia, gueure Erregue Jaunari lagundu da guijon osasunagaz, ceruco arguiagaz, ta Er-

reinu guztico zueen bidiagaz. 3. Eguin biar ditugu Erregue Jaunaren aguindubac. Bada San Pedro Apostolubac esaten badau (1), Erregue deungai, ta pede bagacuai bere obeiduteco. Ta Baruc Propheta Santubac esaten beutsen Isrrael-tarrai (2). Nabucodonosor Babilonijaco Erreguia gaiti, Jaungoicuari erregututeco. Ta Eleisiaren lelengo guiza aldiheetaco aguintarijac, Eleisiaren, ta cristinauben gaisquinao, edo *tiranuac* izan arren, cristinaubac ondretan bacitubeen, eura gaiti oracinoia eguiten beeben, ta pecatu ez zan gaucetan, obeiduten beutsen: ¿Ceimbat gueijago gueure Erregue zuzenac, cristinau eguijacuac, Jaungoicozcuac, ta Aita on baten erraia bigunac dauquezanac gaiti eguin biar dogugue?

V. Erregue Jaunaren urrengo dira, ta Erreguen lecuban dagoz Errijetaco juezac. Onec dira Errijetaco baque santuba, legue zuzenac, ta ordena onac oinian euqui eraguin biar ditubenac. Juezac dira, escandalubac, gavetaco batzaar sospechacuac, ordiquerijac, lapurretac, blaspemijac, maldecinoiac, ibilte desonestubac, ta beste aguirico pecatubac eragoizi biar ditubenac. Caridadiagaz, ta modu onagaz, aldaguijenian, ta ez babere castigubagaz zaintu biar davee euren Errijetaco ordena batquetsuba, ta Jaungoicuaren legue santuba. Bada San Paulo Apostolubac dinuan leguez (3), ez daravitee alperrie guerrija ezpatia; ez bada Jaungoicuac emonda, dauque escubidia Juezac, gais-

(1) 1. Epist. C. 2. (2) C. 1. (3) Rom. C. 13.

Icasiquizuna.

219

qui eguiten davena , castiguetaco , liburu Sa-
gradubetan sarri iracurten dan leguez.

Alan Jaungoicuaren aguinduba da , cristi-
naubac , bai testamentu zaarrian , ta bai Evan-
gelijoco iracatsi santuban , Juezac ondrau biar
dituguna , amau biar dituguna , ta euren erri-
jaren oneraco aguindubac eguin biar dituguna.
Arima guztia , dino Apostolubac (1) , guizon,
eta emacume guztia egon biar davee altsu nau-
sijen aguindupian. Alizate guztia dator bada
Jaungoicuagane. Alan aguintarijari gogortuten
jacona ; Jaungoicuaren ordeniari gogortuten ja-
co , dino San Pauloc berac. Ta esaten deutsa Ti-
moteo bere Discipulubari (2) : Erregue Jaunac,
ta Juezac , edo aguintarijac gaiti erregubac , ta
oracinojac eguiteco Jaungoicuari. Ez dago gau-
za jaquinagoric , neure entzula onac , cristi-
nauben legutian , munduco aguintarijai zor deut-
segun lotsia , leijaltasuna , ta obeidutia baino.

Oneen ondorio dira nausijaguac , ceintzue
ondrau biar ditugun Jaungoicuaren icenian. Ba-
da Jaungoicnac berac esaten deutsu (3) : on-
drau daiguzala persona zaarrac ; ta jagui gait-
zala buru urdinaren aurrian. Onegaz aituten
emoten deutsu , edadiari euqui biar deutsagula
lotsia. Ta aparteco modubagaz ondrau biar di-
rugula , gueu baino nausijago dirianac , edo gueu-
ri aguinduteco , edo zaintuteco escubidia dau-
queenac , ceintzue oidirian gueure Eracuslac , edo
Maisubac , gueure Jaolac , edo curadoriac ,
gueure gurasuen gurasuac , edo guraso ordecuac ,
ta

(1) *ibid.* C. 2. (2) *Tim. C.* 4. (3) *Levit. C.* 19.

ta zaarraguac. Onec guztia sartuten dira lau-
garren Jaungoicuaren aguinduban.

Ezautu daigun bada cristiinaubac, aguindu
onen contuba artuco deitacula Jaungoicuac, bes-
teena leguez. Jaungoicuaren beraren lecuban da-
gozala Eleisa guizon guztia, gueure salbaci-
noeco lanetan biarra eguiteco. Ta baita Erre-
gue Jaunac, ta Juezac bere, gueuri munduban
vitzi izaten lagunduteco. Ta guztia ondrau
biar ditugula Jaungoicuaren icenian, ta guztia
obeidu biar deitsegula, esan dan moduban.
Erregutu daijogun bada Cerubari guztia gaiti,
emon daigun bere gracia, ta betico
gloria. Amen.



IV. ICASQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan: *Ugazaabac otseguina*
zor deitseena: ta otseguinac Ugazabai zor
deitseena.

Tratu baten bitartez ugazabaac, ta otseguinac
euren burubai ezarten deitseez, neure entzula
onac, leenago ez euqueezan eguin biarra. Uga-
zaba batec otseguina echera artuten davenian,
cer eguin barriac ezarten deitsaz bere buruba-
ri: Ta otseguin bat ugazaba servidutera doia-
nian, sartuten da ugazabaren aguindupian. Ta
ara emen, celan, gurasuac umiai zor deitsezan
leguez eguin biar batzuc, ta umiac gurasuac

ba-

Itasiquizunac.

221

beste batzuc, ugazabaac bere dauqueezan aparteco eguin biarrac otseguinen oneraco, ta otseguinac ugazaben oneraco.

Cereguin oneec izentetan ditu San Paulo Apostolubac, bai otseguin, edo crijadu, crijadenac, ta bai ugazaba, edo Jaunensac. Ta dino Apostolu Santubac (1): Otseguin zarianac, edo crijadu, edo crijada obeidu eguijeezu ceuben araguizeo ugazaba, edo jaunai bildurragaz, ta icariagaz, vijotzeo humildade, ta zintzotasunian, Jesu Cristori berari leguez. Ez aimbeste, euren ederra gaiti, ta curac icusi zaguijezan, areen esanac eguinagaz. Ez bada Jesu Cristoren criadubac leguez, Jaungoicuaren vorondatia gogoz, ta vijotzeri eguinagaz. Nai otseguinac, ta nai bestelacuac jaquin biar dau bada, ondo eguinaren sarija artuco davela Jaungoicuaren escubetati. Ta zubeo ugazabaac, edo Jaunac otseguinac daucazuzanoc, beste aimbeste eguin eurai, zamaiaac parcatuta, edo zamaica beti jardun bagaric, gogoratubagaz, cerubandaguala ceubeen ots eguineen Jaungoicua, guztien ugazaba, inor bere munduban andija, edo chiquija dalaco, goguan aguijago sartuten ez jacona. Espiritu Santubac San Paulo Apostolubaren aoti esandaco verba oneetan, agui da, cristinaubac, arguiro; otseguinac cer zor deuteseen eureen ugazabai; ta ugazabaac cer zor deuteseen eureen otseguinai. Alcarri dautseez bitzubeen eguin biarrac. Ta entzun eguizuz gogo onagaz ceintzuc dirian.

(1) Ephes. C. 6.

I. Laugararen aguinduba gordeetaco, otseguinac, edo crijadu, crijadaac: 1. Amau biar ditubee, ta estimau biar ditubee eureen ugazabac vijotz onagaz, humildadiagaz, ta lotsiagaz Jaungoicuaren lecuban dagozalaco. Otseguin izatia, edo ez izatia noberaren escuban dago. Baina bein otseguinzara juan ezquero, ugazabari lotsa ona, humildade, ta maitetasun eguijazcu eracustia, Jaungoicuaren aguinduba da. 2. Otseguinac obeidu biar deutsee ugazabai: Bateti, echiaren oneraco biarreetan, ta aguindubeetan. Bada ugazabaren esanac eguiteco, ta echia serbiduteco, duaz otseguinzara. Besteti, obeidu biar deutsee ugazabai, eureen arimeen oneraco, errazoez aguinduten deutseezan gaucetan. Doctrinia icastia, Sacramentu santubac errecibidutia, Sermoetara, ta Eleisaco cer eguin santubeetara juatia, Errosarijo santuba erreceetia, ta beste, eureen arimeen oneraco dirian, ta erreztu eguin aldaguijeezan gauzaac, ugazabac aguindu ezquero, eguin biar ditubee otseguinac. Beste aimbeste, pecatuti alderatuteco aguinduten deutseenian. Edo joco gaistoric ez eguiteco; edo maldicinoric ez esateco; edo gavian echeti ez urteteco; edo pecatuzco dantzeetara, adisquide deungue-tara, eta eche sospechacuetara ez juateco, edo jantzi indecentiac ez erabilteco; nai beste pecatu, edo pecatuco peligruba dan gauzia, ugazabac aguindu ezquero, eguin biar dau otseguinac. Ta esan biar dau compesinoian, beste pecatuben gainera, ugazabaren aguinduharen contra eguin evana onaco, edo alaco gauza.

Icasiquizumak

223

3. Otseguinac beguiratu biar deutsee ardura andijagaz ugazabaren gauzai, endamas bere contura ugazabac ichi ditubanai. Onen contra otseguinae eguiten davee pecatu. Leleengo : jagocuen beste biar eguin ezagaz. Bigarrenian : eurren paltaz ugazabaren gauzaac galdubagaz : Irugarrenian : Biar daveen baino gueijago castaubagaz, nai gulerijeetan, nai isilicaco asmue-tan, nai eurren contura dagozan echeco gauceetan. Laugarrenian : Ugazabeen naija bagatic, echeco gauzaac inori emonagaz. Bostgarrenian : Echeco gauzaac ostubagaz. Ta, erabatera asco izan ez arren, lapurreta chiquijac alcarri badautsaz, eguiten davee pecata andija, gauza andira elduten danian. (1) Alperrie da esatia : Soldata chiquija emoten deutseela. Andijagua escatu, baino ez dauca. Edo andijagua emoten deutseen lecura juan. Bost jazo oneetan, esan dan moduban, ots eguinac calte andija eguiten badeutsa ugazabari, viurtu biar deutsa atzera, quendu, edo galdu deutsan beste. Bada ugazabac, iratuba eguin eban leguez, soldatia, ta janarija emon ezquero, gueijago zor ez deutsa. Ta andi gainera otseguinac bere erruz galdu eraguiten deutsana, oostuba leguez da. Ta jaubiarri biurtu biar jacona, da.

Oneec dira cristinaubac, otseguinen cer eguin nausijac euren ugazaben onerataraco, ta onerataraco. Onezaz ostian otseguinac estimau, ta maite izan biar davee echia, ta echeco gentia, guztiac pamelijs batecuac dirian leguez.

Lu-

(1) Prop. cond. 37. ⁸³ Inoc. XI.

Euren ontasunari jagoca, echian jazoten dirian paltaac, descuiduac, ta isilgauzaac, laatzac ezcutau biar ditubanac, campuan ez esatia, ta ugazaben ondra ona, ta cleitu ona gordetia. Bada guztia gorroto deutsen, gauzia da, otseguin baten auan ugazaben paltaac, genijuac, descuiduac, asarriac, ta echeco pamelijaren arteco, casic popuertzaco argaltasunac, ta gueurrezco miseriiaac, ibiltia. Otseguin humildiac, zinzuac, isilac, esan onecuac, Jaungoicozcuac, eta biarguinac dira, Cerubac, eta mundubac estimetan ditubanac. Ta duda bagaric Jaungoicucac emongo deutsee otseguintza onaren sarija euren erijotzaco orduban. Baita ugazabai bere, otseguinai beste aimbeste eguiten badeutsee, Jaungoicucac aguinduten deutsen leguez. Icusi daigun bada, ugazabaac otseguinai cer zor deutsen.

II. Ugazaba, edo Jaun dirian guztia gogoratu biar davee : leleengo, ez daguala Jaungoicuaren aurrian ya erabaguiric, andija, edo chiquija dalaco, aberatsa, edo pobria dalaco, jasua, edo bajucua dalaco, jaquituna, edo ez jaquina dalaco. Ez bada gentila, ta judeguba, circuncidauba, ta aimbagacua, barbarua, ta escitia, crijaduba, ta ugazaba, nai dan sortuerara, edo vitzieracua, guztia diriala Jaungoicuarenac, ta onac izan ezqueto, guztietan daguala Cristo, gure Jauna (1). Gomuta onegaz aisaatu daiqueez munduco jaunac, aberatsac, ta ugazabaac euren burubetan vanidadiac sortu oidi-

(1) Ad Colos. C. 3.

Itasiquizunai.

225

dituban queiac, erichi arruac, ta andiari irago gaistocuac. Bada Jaungoicuac, guztien jaun bacarrac, ugazaba bacarrac, ta aita onac, gueijago gura deutsa pobre zintzuari, aberats arruari baino. Gueijago crijadu leijal, ta zuzenari, ugazaba aisaatubari, ta vijotz gogorreacuari baino. Guztioe gara Jaungoicuaren crijadubac. ¡Ta ojala baguina zintzuac! San Paulo Apostolubac bere ondrarie andijentzat, contetan evan, Jesu Cristoren eridaju izatia. ¿Ta ceimbat bidar Jaungoicuac aldatu ditu eraac? ¿Ceimbat ugazaba, ta jaun viurtu dira crijadu izatera? ¿Ceimbat crijadu pobre eldu dira ugazaba, ta Jaun andi izatera? ¡Ah! Murmurau begui mundu gaistuac onaco jazo ascoren gainian. Baina eürac dira, Jaungoico alsubac bere jaquituriya amai bagacuan ondo neurtuta, daucazan eguitadiac. Eürac dira gueure beguijen vistati quendu biar ez ditugunac. Ta endamas, edo euquijagaz, edo entzotagaz, edo jaquiturijagaz, edo aguindutiagaz, edo inoren mesediagaz beste gentiaren artei goraago igon daveenac. Onere ezauru biar davee, beerago ichi ditubeenac bere, Jaungoicuarenac diriala. Ta eürac jaso ditubanac, areec bere jaso euquezala, gura izan bako. Ta munduban ichi baditu luertaren urrago crijadu crijaldac ugazaben aguindupian; ceruban goraago jasoteco, ichi ditubala mentutaz.

Presta era onegaz esaten jacue ugazabai: 1. Amau, ta estimau biar ditubeela euren otseguinac vijotzeti, euren umiac balira leguez. 2. Otseguinac ez badaqujee doctrinia ondo; eracutsi

biar deutsee ugazabaac , edo noc eracutsi imi-
ni , edo icasteco bidia emon bateti , edo bes-
teti. Bada ugazaben contura dagoz otseguinac,
ta ugazabaac Jaungoicuari contu emon biarco
deutsee eurac gaiti. 3. otseguinai emon biar deut-
see ugazabaac demporia , echeco laneen , ta eguin
biar oidirianen calte bagaric , Sacramentu San-
tubac errecibiduteco , Eleisaco cereguinetara jua-
teco , ta cristinau eguijazgo baten vitzi modu-
ba iragoteco. Bada bere arimiaren caltian ez dua
inorbere otseguinzara , ta juan bere biar ez
dau. 4. Eragotzi biar deutsal ugazabac otsegui-
nari , pecatu dirian gauzac , pecatuzco esanac,
edo eguinac , pecatuzco ecandubac , egotiac,
ibiltiac , echiac , eta lagunac , guraso batec
umñari leguez. Bada ugazabac neurrija iminita,
contu artuten ez badeutsa otseguinari onaco
Jaungoicuaren ondraraco , ta bere arimiaren one-
raco eguin biarretan , bestec ez deutsa artueo.
Ta guerataco da otseguina ezi bagacua , cristi-
nautasun bagacua , lotsa on bagacua , ta Jaun-
goicuaren bildur bagacua. Ta au guztiau izan-
go da ugazabaren erruba.

Baquit , ugazaba ascoc esango daveena:
;lastina andijan! Otseguinai esija iminten asi
ezquero , edo euren ibiltiac galarazo ezquero,
arcequin baquerie ecin leguijala : biarrie eguin
gura ez daveela : edo echeti urteten dabeela.
Jaungoicozco otseguin bat topau ecin leguijala....
Achequijsa oneec ez dave balijsa Jaungoicuaren
aurrian. Ugazabaac badira Jaungoicozcuac ; to-
pauco ditubee otseguinac Jaungoicozcuac. Bai-
na

na dan moduban dala. Ugazaben eguin biarra da, otseguinac echian dauquezan artian, onci contu eguitia, ta Jaungoicuaren contraco gauzaac eragoztia. Echeco pamelijaren arduria ez daucana, dino Apostolu Santubac (1) gentila baino deungaago dala. ; Ta ce pamelijaren ardura dauca, otseguinari naidaben nasaitasun, ta ibilera pecatuzcuac, gabaz, ta egunaz, echian, ta campuan, biarra eguin daguijan, parcatuten deutzazan ugazabac? Biar madaricatuba da alacua. Ta gentila baino, oba ez dana alacougazaba.

5. Ugazabac emon biar deutsa otseguinari, echiac dacarren janarija, gosez euqui bagaric. Jan urrija, ta gosezco maija daguan echian, otseguinac urteric, baino lapurreta gueijago eguingo dau. 6. Ez deutsa ugazabac otseguinari, edadiac, opicijuac, ta errazoe onac aguinaduten daven, baino biar gueijago eraguin biar. Ez ditu ugazabac otseguinac biar alpetrerijaraco, leen esan dan leguez. Baina, ez da gau, ta egun etenaz, arrastaca, vitsa darijuela, biarrianse beti erabilteco bere. Bagoz ugazaba batzue otseguineen biarragaz, inos aspertuten ez dirianac. ; Ce gauza andi da bada, alaco ugazabaac inos crijadu, edo crijada on bat ez euquitia? ; Beti ituaz biar pian? ; Beti ugazabac otseguinarene biarrari guichi derichola? ; Nai leuque otseguin Jaungoicozcuac echian euquitia? Ta oni ezartuten bajaco gosia, orduban izango da eche on drauba, otseguin zintzuac, ta Jaungoicozcuac.

(1) 1. ad Thim. C. 5.

topectaco. ¡Oh ceimbat ugazaba zequen, ta codicioso dagozan, otseguinari zanetaco odola bere chupauco leusquijuenac, albaleguijee! Ez dira otseguinac sobraubac. Ez dira edosijac. Cristinaubac dira. Gueure anaiac dira. Gueu edu, Jesu Cristori costa jacozanac dira; Ce pozgarri emoten deutsee bada alaco ugazabaac enreu otseguinai, biar gueijago eraguin daguijen? Conciencijaco libertadia. Biarra eguin ezquero euren gustora, atiac zabalic dauqueez alaco echeetan otseguinac gavaz, (nai egunaz, jaijegin santuba biarric ecin leguijana izan ezquero) vigüiretara, joco gaistüetara, errömedija, ta püestara pecatuzcuetara, eche, edo lagun sospechacuetara, edo jaquinico pecatuzcuetara juateco. ¡Oh penagarrija! Zortu zortu ugazabaac. Ceuben umiac ez badira bere, ceuben umien leuban artu dituzunac, dira. Ceuben umiac balira leguez, Jaungoicuari contu emon biarco deutzazunac, dira.

7. Ez jaco otseguinari biar eragotzitaeoric eraguin biar doméeca, ta jai osuetan. Nöberac eguitia leguez da, otseguinari eraguitia. ¡Ceimbat otseguinac jai santubac iragoten ditubee euren erropaac adabertan, astegin baten puntada bat eurentzat eguiten isteen ez deutseelaco! Ugazabac zor deutsa otseguinari, bere erropaac tercijo baten adabau biarra, beste gauzaric tratuban irago ez beeben. Otseguinzaco errazoiac au escatuten dau. 8. Erabaguita dauquen soldatia, emon biar deutsee otseguinai zuzen. Azquenian: aparteco errazoeric ez dauqueela, ez ditubee

ot-

Icasiquizuma.

229

otseguinac echeti atera biar , urtia , edo dem-
pora icentauba eldu artian ; otseguinac cleitu-
ban calteric euqui ez daguijeen. Oneec dira,
cristinaubac , ugazaben eguin biar nausijac eu-
ren otseguinen gainian. Oni darraico otseguina-
ri verba deungaric ez esatia , exemplu deunga-
ric ez emotia , inoren gauciari , guichijan izan
arren , oratuteco , ta echera ecarteco , ez aguin-
dutia , arpeguiera astunic , edo gorrotoconic ez
eracustia. Maite izatia , carinoz , ta verba bigu-
naquin biarra eraguitia , ta beste guraso on ba-
ti bere umentzaco jagocan guztia.

Chito gauza chaarra da , otseguinac gaiti
leen esan dan leguez , ugazabaac euren otsegu-
nen paltaac , ta descuiduac azaldeetia. Bagoz
ugazaba batzuc , inos otseguin chaatric izan ez
daveenac : ¿Ta cegaiti? Euren cristinautasuna-
gaz , vijotz bigunagaz , ordu oneco esan lotsa
onecuagaz , paciencijagaz , ta otseguinen arima-
co , osasuneco , ta gorputzeco ardura ona , ta
presta artubagaz , beguiratuten deutseelaco otse-
guinai. Otseguinac ain onac izan ez arren le-
lenguan , dacutseenian Aita on bat , edo Ama
on bat ugazabaren lecuban ; artuten davee go-
go barrija , echiari , ta echeco gauza guztiai on-
do beguiratuteco , euren ugazaba ona , ta on-
draduba maite izateco , ta estimeetaco , guraso
on bat batliz leguez. Beste batzuc inos bere ez
oidavee otseguin onic. ¿Ta cegaiti? Esan da
gueratu da zati bat. Onen ondoric ez guichien
dana : Ugazabaac euren otseguinen paltaac za-
baldutia , ecandu galduba da. ¿Ez davee otse-
gui-

guinac biar euren ondria , ta cleituba? Ez da-
 vee munduban vitzi biar . Ceuben umen pal-
 taac alan azaldeetan dituzu? Bada otseguinac be-
 re Jaungoicuarenac dira , ta zor jacue ondria oña.
 Palta bagacoric inor bere ez dago. Ugazabari
 jagocana da , otseguinaren paltaac aleguinaz er-
 remedijeetia. Ondo esanagaz , paciencijagaz , lot-
 sa onagaz , ta itzalagaz , ta ascotan zurria emo-
 nagaz otseguina oquerra , ta gaistua bada , es-
 curatu , ta ondu biar dau ugazabac , inundi al-
 badai. Palta andijac badaucaz otseguinac , lotsa
 gaistocua bada , obeidu gura ez badeutsa uga-
 zabari , ta zucendu ezin badau , demporia da-
 venian echeti atera , edo leenago , preminiac es-
 catuten badau. Baina ez otseguinaren paltaac za-
 baldu. Au caridadiaren contra beti da. Ta as-
 cotan zuentasunaren contra bere bai.

Ez bada aaztu , neure entzula onac , lau-
 garren aguinduco eguinquizequin. Gurasuac
 amau beguijez seme alabaac Jaungoicuaren ice-
 nian , ta azico ditubee ceruraco. Umiai eracut-
 si bequijee chiquitati Jaungoicuaren dotrinia,
 pecatubaren bildurra , ta Ceruco ondasunen gu-
 rarija , ta eurac izango dira ume onac , zintzuac,
 Jaungoicozcuac , ta esanecuac. Sacerdote Jaune-
 tan gogoratu daigun Jesu Cristo gueure Jauna
 bera , ceinen erijadu urrecuac dirian sacerdote
 guztia. Orduban amauco ditugu , ta ondrau-
 co ditugu sacerdote guztia , bacocho bere le-
 cuban , Aita Santu Erromacua , Obispo Jau-
 nac , Cura Jaunac , ta beste guztia. Erregue
 Jaunai , ta Juezai beguiratu daijeegun gueure
 on-

Teasiquizunac

237

onguila andijai leguez , eürac zaintuten davee-
laco gueure Erreinuco , errijeetaco , ta echeeta-
co baque ona , ta euquijaren zucentasuna. Or-
duban esquerrac emongo deutseeguz , lelengo
Jaungoico onari , ta guero gueure aguintarijai.
Ontzat artuco ditugu euren aguindubac , ta co-
bru emongo deutseegu gogo onagaz. Ugazabaac
sinistu beguijee , umen lecuban dauqueezala ot-
seguinac ; ta eürac estimauco ditubee , maitetu-
co ditubee , ta beguiratuco deutsee otseguinai
arimaco , ta gorputzeco premineetan , eureenac
balira leguez. Ta orduban euquico ditubee au-
queraco otseguinac , ta guztiaç gordeco daves
laugarren aguinduba.

Escatu dei jogun gracia andi au Ama Vir-
gina guztiz santiari. Bera da Jaungoicuaren Ama,
sacerdote guztien Ama. Erregue , ta aguintari
guztien Ama , guraso , ta ume guztien Ama,
ugazaba , ta otseguin guztien Ama. Izan zaitez
ceü , Ama erruquiorra , Jesus ceure seme mai-
tiaren aurrian gueure vitarteco seguruba , jadi-
chi daigun mesede santa au , ta onegaz ceure
gracia , ta Ceruco gloria. Amen.



BOSTGARREN

AGUINDUBA.

I. ICASQUIZUNA.

Ceinetan eracusten dan : *¿ Celan aitu biar dan?*
Inor ez illtia? ¿ Nos ez dan pecatu, inor illtia?
¿ Ta ce pecatu andija dan, inor illtia?

I. **B**ostgarren lecuban aguinduten deutsu, neure cristinaubac, Jaungoicuac : inor ez illteco. *Non occides.* Gauza bi Jaungoicuac escatuten deutzuzala aguindu onetan, dino Erromaco Caricizmuac (1). Bata da ; inor ez illtia. Ta bestia ; arerijuac, ta adisquidiac, proximo guztia ; maite izatia, guztiaquin baquia euquitia, ta besten paltaac paciencijagaz iragotia. Gueure lagunac, edo Proximuac celan maite izan biar ditugun ; ta arerijuai gach eguinac celan, ta ceta- raguino parcatu biar deutseeguzan, esanda, gueratu da lelengo Aguinduban. Ta Aguindu onetan bacarrie esango da, inor ez illtiari jagocana.

Aguindu guztietan gogoratu biar dogu,
 cris-

(1) 5. precept. n. 2.

Icasiquizunac.

233

cristinaubac, gueure Jaungoicuaren ontasuna; ta bere biguntasunac, gueu gordeetaco, ta zaintuteco, daucan arduria. Langarren Aguinduban zaintu dau gurasuāi, ta nausijaguai euqui biar deutseegun ondria, lotsa ona, ta maitetasuna. Bada eurac dira, Jaungoicuaren urreengo, gueure guizonaren, ta cristinaubaren izatia emon deutcubeenac. Onen ondoric Jaungoico onac, ta mansuac zaintu, ta gorde gura deutsee guztiai vitzitzia. Alan aguinduten dau inor ez ilteco. *Non occides.* verba oneetan eragozten deutcu Jaungoicuac: ez bacarric inor iltia; ez bada inori osasunian, edo gorputzian, calte eguitia bere bai. Alan, inor iltia, banatutia, odol-dutia, beso bat, edo azur bat austia, berenua, edo gachgarri bat emotia, edo gaixotutia, guztia dago eragotzita bostgarren aguinduban. Baita gueijago bere. Bada noberac inor ill ez arren, bestiari inor ilteco, banatuteco, edo gorputzian calte eguiteco, aguindutia, lagundutia, conseju emotia, ataraco voticacua, erramientia, edo bidia emotia, guztia dago eragotzita aguindu santu onetan. Ez dozu illgo, dino Jaungoico andijac. Ez deutzazu inori calteric eguingo, ez vitzitzaan, ez osasunian, ez gorputzian, ez ceure eguinagaz, ez inori eguiten eracursijagaz, ez aguindubagaz, ez lagundubagaz, ta ez da ecetara bere. Jaungoicua bera da gueure vitzitziaren ta erijotziaren, osasunaren, ta gaixuaren, gorputzaren, ta arimiaren Jaubia. Ta ez dau aren ontasun altubac gura, luurrecoc inori gauza onetan icutu daguñon, bere aguindu santu-

tuba, edo alizatia bagaric.

Ez dozu inor illgo: Jaungoicuac bere leguian esanagaz batuten ditu modu onian aguindupe onetara munduco guizon, ta emacume guztia. Ez ganadubac, eta pristijac, edo patarijac, Erromaco Catecismuac San Agustinegaz dinuan leguez (1); dempora bateco eregeen utseguitiac arria, baino urrinago alderatuteco. Bada Jaungoicuac ez deuseu eragozten ganadu gauzaac illtia aguindu onetan, ez bestetan bere, gauza vitzijac dirialaco. Guizonac, ta emacumiac dira aguindu onetan sartuten dirianac, amaren sabelian sortuten dirianeti vitzi dirian arte guztian. Aguindu onec artuten ditu bada bere azpijan guizon, ta emacume guztia, bai cristinaubac, bai eregiac, bai turcubac, bai gentilac, ta bai judegubac; ta baita gueure burubac bere. Izan ezquero gorputza, ta arimia daucana, nai urrinecua, ta nai urrecua, nai adisquidia, ta nai arerijua, nai ona, ta nai deunguia ezin ill guina inor, Jaungoicuac, edo Jaungoicuaren ordecuac aguindu bagaric. Ez da calteric eguin bere, leen esan dan moduban. Campo au guztiau artuten dau bostgarren aguindu santubac, inor ez illteco esanagaz. ¡Oh Jaungoico guztiz ona, ta mansua! ¡Noc maite ez zaitu! ¡Ta beri izango da pecatu, inor illtia? Ez cristinaubac, ta ieusi daigun, nos ez dan pecatu.

II. Modu ascotara jazo leteque, inor illtia peccaturic eguin bagaric. Leleengo: Juezac aguiduten davenian. Juezac Jaungoicuaten lecubari.

(1) Ubi supr. n. 36.

dagoz, leen esan dan leguez. Jaungoicua aguin-
 du deutsee Juezai errijetaco, ta echeetaco gen-
 tiaren vitzitzac, aziendac, ta baque ona zain-
 tuteco. Jaungoicua berac emon deutsee Juezai
 escubidia, edo alizatia, gaistuac, ta deungaac
 castigueetaco, baita ascotan illteco bere (1).
 Guizon bat, edo emacume bat bada errija-
 oquerra, lotsa galducia, ta ezi bagabua, la-
 gunai calte eguiten deutseena, ta ez zama jagaz,
 ez ondo esanagaz, ez beste castigugaz escura,
 ta agindupera etorri gura ez dabena, bada guz-
 tien calteguina, dino Santo Tomasec (2) alaco
 guizon, edo emacumia gaiti: popuertzacua da-
 la, ta ondo dala, alacua illtia. Osalari batec,
 edo Medicu batec gorputzeco zati igartu, edo
 usteldu bategaz eguiten davena, eguiten dau
 Juezac alaco guizon, edo emacume deungua-
 gaz. Gorputzaren zati guztia dira onac, ta
 biarrecua, gauza badira, gorputzari lagundu-
 teco bere biarretan. Baina gorputzaren zatija
 bada igarra, edo ustela, bere lecuban egon-
 gura ez davena, ta gorputzari lagundu biar-
 rian, calte eguiten deusana; ebagui, ta quen-
 du eguiten jaco gorputzari alaco zati galduba.
 Beste aimbeto eguiten dau, ta eguin biar
 dau Juezac guizon, ta emacume deungaaquin.
 Besteen caltian diriana ezautu ezquero, quendu
 biar ditu, ill biar diru deungaac, leguia aguin-
 duten daven moduban. Alan urcatuten dira, ta
 illen dira guizon, eta emacume deungaac,
 Juezac aginluta, peccaturje eguin bagaric. Bi

ga-

(1) Exod. C. 22. (2) 2. 2. q. 64. a. 2. (1)